DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Musika eta Dantza Eskola

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

# Donostiako "Musika eta Dantza Eskola" TEAren langileen aldi baterako beharrei erantzuteko, 3229 Irakaslea (Hizkuntzaren Pedagogia-Pianoa), 3238 Irakaslea (Piano Modernoa) eta 3259 Irakaslea (Bateria-Perkusioa) lanpostuen lan-poltsa handitzeko eta lanpostu horien espezialitateetan aldi baterako programak egiteko izangaien zerrendak sortzeko deialdiaren oinarriak.

# Bases de la convocatoria para la ampliación de la bolsa de trabajo de los puestos de Profesor/a 3229 (Pedagogía del Lenguaje-Piano), 3238 Profesor/a (Piano Moderno) y 3259 Profesor/a (Batería-Percusión) y la creación de listados de personas aspirantes a la realización de programas temporales en las especialidades de dichos puestos para atender necesidades temporales de personal del OAL Escuela de Música y Danza de San Sebastián.

## OINARRIAK

### Lehena. Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea Donostiako "Musika eta Dantza Eskola" TEAren langileen aldi baterako beharrei erantzuteko, 3229 Irakaslea (Hizkuntza Pedagogia-Pianoa), 3238 Irakaslea (Piano Modernoa) eta 3259 Irakaslea (Bateria-Perkusioa) lanpostuen lan-poltsa handitzea eta lanpostu horien espezialitateetan aldi baterako programak egiteko izangaien zerrendak sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko musika eta dantza eskolei buruzko maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuaren seigarren xedapen iragankorrean xedatutakoarekin bat etorriz.

Erakunde Autonomoak lan-poltsak bat behar ditu 3229 Irakaslea (Hizkuntzaren Pedagogia-Pianoa), 3238 Irakaslea (Piano Modernoa) eta 3259 Irakaslea (Bateria-Perkusioa) lanpostuen aldi baterako ordezkapenak bete ahal izateko.

Prozesu honetan, oposizioa izango da hautaketa sistema.

Prozesua osorik gainditu eta lanpostuen baldintzak betetzen dituzten pertsonek Erakunde Autonomoaren 3229 Irakaslea (Hizkuntzaren Pedagogia-Piano), 3238 Irakaslea (Piano Modernoa) edo 3259 Irakaslea (Bateria- lanpostuaren lan poltsan sartuko dira, "Donostiako Musika eta Dantza Eskolako lan poltsak eratzeko eta kudeatzeko irizpideak" izeneko 2. artikuluan ezarritakoaren arabera. Horren bidez ezartzen da lan poltsen lehentasun-ordena.

Prozesua lanpostuaren espezialitateetako batean

## BASES

### Primera. Objeto de la convocatoria.

Es objeto de la presente convocatoria la selección de personas para la ampliación de la bolsa de trabajo de los puestos de Profesor/a 3229 (Pedagogía del Lenguaje-Piano), 3238 Profesor/a (Piano Moderno) y Profesor/a 3259 (Batería-Percusión) y la creación de listados de personas aspirantes a la realización de programas temporales en las especialidades de dichos puestos para atender necesidades temporales de personal del OAL Escuela de Música y Danza de San Sebastián, de acuerdo con lo dispuesto por la disposición transitoria sexta del Decreto 64/2024, de 21 de mayo, de las escuelas de música y danza de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El Organismo Autónomo necesita disponer de bolsas de trabajo para poder cubrir las sustituciones temporales de los puestos 3229 Profesor/a (Pedagogía del Lenguaje-Piano), 3238 Profesor/a (Piano Moderno) y 3259 Profesor/a (Batería-Percusión).

El sistema selectivo de este proceso será el de oposición.

Las personas aspirantes que superen el proceso completo y cumplan los requisitos de los puestos, pasarán a integrar la bolsa de trabajo del Organismo Autónomo del puesto 3229 Profesor/a (Pedagogía del Lenguaje-Piano), 3238 Profesor/a (Piano Moderno) o 3259 Profesor/a (Batería-Percusión), siguiendo lo establecido en el artículo 2 de los “Criterios para la constitución y gestión de bolsas de trabajo de la Escuela de Música y Danza de San Sebastián” por el que se establece el orden de prelación de las bolsas.

Las personas aspirantes que superen el proceso

bakarrik gainditzen duten izangaiak, edo erabat gainditu arren lanpostuaren baldintza guztiak betetzen ez badituzte, aldi baterako programetarako hautagaien zerrendan sartuko dira, probak gainditu dituzten espezialitateetan.

únicamente en una de las especialidades que componen el puesto o habiéndolo superado completamente no cumplan todos los requisitos del puesto, pasarán a integrar el listado de personas candidatas a programas temporales en las especialidades cuyas pruebas hayan superado.

Sortzen diren lan poltsei dagozkion lanpostua ondorengoak diraa:

Los puestos de trabajo correspondiente a la bolsas de trabajo que se crean son los siguientes:

**Irakaslea (Hizkuntzaren Pedagogia-Piano)**

- Lanpostuaren kodea: 3229
- Hizkuntz eskakizuna: 3 (C1-C1)
- Derrigortasun data: amaitua
- Azpitaldea: A2
- Destino osagarria: 20
- Berariazko osagarria: 20.659,70.-€
- Prestakuntza berezia: Gradua Musikako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetan (Pedagogia). Irakaskuntza-espezialitatea: Pianoa.* (lanpostuaren prestakuntza espezifikoa, indarrean dagoen LPZren arabera, 1. eranskina).
- Betekizuna: Delitu sexualik ez izatearen agiria.

**Puesto: Profesor/a (Pedagogía del Lenguaje-Piano)**

- Código del puesto: 3229
- Perfil lingüístico: 3 (C1-C1)
- Fecha de preceptividad: vencida
- Subgrupo: A2
- Complemento de destino: 20
- Complemento específico: 20.659,70.-€
- Formación específica: Grado en Enseñanzas Artísticas Superiores de Música (Pedagogía). Especialidad docente: Piano* (formación específica del puesto según RPT vigente, Anexo 1).
- Requerimiento: Certificado de no existencia de delitos sexuales.

**Lanpostua: Irakaslea (Piano Modernoa)**

- Lanpostuaren kodea: 3238
- Hizkuntz eskakizuna: 3 (C1-C1)
- Derrigortasun data: amaitua
- Azpitaldea: A2
- Destino osagarria: 20
- Berariazko osagarria: 20.659,70.-€
- Prestakuntza berezia: Gradua Musikako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetan, Interpretazio edo Pedagogia espezialitateetan. Irakaskuntza espezialitatea: Teklatuak/Jazz Pianoa.** (lanpostuaren prestakuntza espezifikoa, indarrean dagoen LPZren arabera, 2. eranskina).
- Betekizuna: Delitu sexualik ez izatearen agiria.

**Puesto: Profesor/a (Piano Moderno)**

- Código del puesto: 3238
- Perfil lingüístico: 3 (C1-C1)
- Fecha de preceptividad: vencida
- Subgrupo: A2
- Complemento de destino: 20
- Complemento específico: 20.659,70.-€
- Formación específica: Grado en Enseñanzas Artísticas Superiores de Música, especialidades Interpretación o Pedagogía. Especialidad docente: Teclados/piano Jazz.** (formación específica del puesto según RPT vigente, Anexo 2).
- Requerimiento: Certificado de no existencia de delitos sexuales.

**Lanpostua: Irakaslea (Bateria-Perkusioa)**

- Lanpostuaren kodea: 3259
- Hizkuntz eskakizuna: 3 (C1-C1)
- Derrigortasun data: amaitua
- Azpitaldea: A2
- Destino osagarria: 20
- Berariazko osagarria: 20.659,70.-€
- Prestakuntza berezia: Gradua Musikako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetan, Interpretazio edo Pedagogia espezialitateetan. Irakaskuntza-espezialitatea: Jazz Bateria edo

**Puesto: Profesor/a (Batería-Percusión)**

- Código del puesto: 3259
- Perfil lingüístico: 3 (C1-C1)
- Fecha de preceptividad: vencida
- Subgrupo: A2
- Complemento de destino: 20
- Complemento específico: 20.659,70.-€
- Formación específica: Grado en Enseñanzas Artísticas Superiores de Música, especialidades Interpretación o Pedagogía. Especialidad docente: Batería Jazz o Percusión.** (formación

Perkusioa.** (lanpostuaren prestakuntza espezifikoa, indarrean dagoen LPZren arabera, 3. eranskina).
- Betekizuna: Delitu sexualik ez izatearen agiria.

específica del puesto según RPT vigente, Anexo 3).
- Requerimiento: Certificado de no existencia de delitos sexuales.

**IRAKASLE LANPOSTUEN EGINKIZUN NAGUSIA:**

Eskolak prestatzea eta ematea.

**BERARIAZKO ZEREGINAK:**

1. Eskolak prestatzea, horretarako beharrezkoak diren materialak hautatu eta prestatuz (fitxak, programazioak, taldeko eskolak, partituren moldaketak, etab.).
2. Irakasleen klaustroetara, ebaluazio saioetara, sailen bileretara eta bere zereginarekin lotuta deitu diren bilera guztietara joatea.
3. Bere lanarekin eta espezialitatearekin eskatzen zaizkion txosten guztiak egitea.
4. Bere espezialitatearen eskolak ematea eta antolatzea, bai eta osagarriak ere, behar izanez gero.
5. Taldeen eskolak eman eta antolatzea, zuzentzea, beharrezkoa den errepertorioa hautatzea eta dinamizatzea, taldearen ezaugarrien arabera (adina, interesak, mailak, etab.), hala eskolan nola eskolatik kanpo, emanaldien egunetan.
6. Bere kargura dagoen materiala zaintzea eta beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egitea irakasleek eta ikasleek erabil dezaten, Eskolako araudiaren arabera.
7. Egoteko eskatzen zaion kontzertu, emanaldi eta abarretan (pedagogikoak) parte hartzea.
8. Esleitu zaizkion karguak betetzea, Zentroaren araudiari jarraikiz.
9. Halaber, esleitu zaizkion eta bere lanpostuan sartzeko eta aritzeko

**FUNCIÓN BÁSICA DE LOS PUESTOS DE PROFESORADO:**

Preparación e impartición de clases en la Escuela.

**TAREAS ESPECÍFICAS**

1. Preparar las clases, seleccionando y elaborando para ello cuantos materiales le sea necesario (fichas, programaciones, clases colectivas, arreglos de partituras, etc.).
2. Concurrir a los Claustros de Profesores, sesiones de evaluación, reuniones de departamentos y a cuantas reuniones sea convocado en relación con su tarea docente.
3. Confeccionar cuantos informes le sean requeridos, con relación a su trabajo y su especialidad.
4. Impartir y organizar las clases de su especialidad, así como complementarias si ello fuera necesario.
5. Impartir y organizar las clases de conjuntos, dirigiéndolos, seleccionando el repertorio necesario y dinamizándolos de manera acorde a las características del mismo (edad, intereses, niveles, etc.) tanto en la Escuela como fuera de ella en los días de actuaciones.
6. Cuidar el material a su cargo y hacer cuantas gestiones para posibilitar su uso por profesores y alumnado según los reglamentos de la Escuela.
7. Participar en Conciertos, actuaciones….. (pedagógicos) para los que sea requerido.
8. Desempeñar los cargos para los que sean elegidos o nombrados, según la normativa del Centro.
9. Realizar, asimismo, aquellas tareas que se le encomienden, acordes con la

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

beharrezkoa den kualifikazioarekin bat datozen zereginak gauzatzea, aurretiaz zerrendatu direnez gain.

cualificación requerida para el acceso y desempeño del puesto, sin perjuicio de las relacionadas anteriormente.

Zerbitzua emango duten denboraldian, bitarteko funtzionario izendatutako Irakasleak ebaluatu egingo dira. Ebaluazioa Bederatzigarren Oinarrian xedatutakoaren arabera egingo da.

Durante el periodo de prestación de servicios el profesorado nombrado funcionario o funcionaria interina será objeto de evaluación, que se llevará a cabo según lo previsto en la Base Novena.

## Bigarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

## Segunda. Requisitos de las personas aspirantes.

2.1.- Deialdian onartuak izateko izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

2.1.- Para ser admitidas en la convocatoria y participar en la fase de oposición, serán requisitos necesarios:

2.1.1.- Nazionalitatez, espainiarra izatea.

2.1.1.- Tener la nacionalidad española.

Era berean, enplegu publikoetara funtzionario gisa sartzeko hauta probetan parte hartu ahal izango dute, espainiar nazionalitatea duten pertsonen baldintza berberetan:

a) Europar Batasuneko Estatu kideetako nazionalak.
b) Espainiar nazionalitatea eta Europar Batasuneko estatuetako nazionalitatea dutenen ezkontideek, duten nazionalitatea dutela ere, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude; eta baita ere nazionalitatea duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere, zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, inoren mende bizi badira.
c) Europar Batasunak egin dituen, Espainiak berretsi dituen eta langileen zirkulazio librea dakarten nazioarteko itunen aplikazio eremuan sartuta dauden pertsonak.

También podrán participar para acceder, como personal funcionario, en igualdad de condiciones que las personas con nacionalidad española a los empleos públicos:

a) Las personas nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea.
b) El cónyuge de las personas con nacionalidad española y de las personas nacionales de otros Estados miembros de la Unión Europea, cualquiera que sea su nacionalidad y siempre que no estén separados de derecho; así como sus descendientes y los de su cónyuge siempre que no estén separados de derecho, sean menores de veintiún años o mayores de dicha edad dependientes.
c) Las personas incluidas en el ámbito de aplicación de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España en los que sea de aplicación la libre circulación de personas trabajadoras.

2.1.2.- 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adin muga gaindituta ez izatea parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

2.1.2.- Tener cumplidos 16 años de edad y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa, en la fecha en la que finalice el plazo de presentación de solicitudes de participación.

2.1.3.- Zereginak egiteko gaitasun funtzionala izatea.

2.1.3.- Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas.

Baldintza hori bere garaian egiaztatu beharko da, mediku azterketaren bidez.

Este extremo habrá de acreditarse en su momento mediante el oportuno reconocimiento médico.

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

2.1.4.- Diziplina espedienteren baten bidez edozein Administrazio Publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioetako zerbitzutik banatuta ez egotea, eta ebazpen judizial bidez gaitasungabetze erabatekoa edo berezia ez izatea enplegu edo kargu publikoetarako, banatu edo gaitasungabetu den kidegoan edo eskalan sartzeko.

2.1.4.- No haber sido separadas mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala de funcionario en el que hubiesen sido separadas o inhabilitadas.

2.1.5.- Lanposturako eskatzen den prestakuntza espezifikoa izatea, indarrean dagoen lanpostuen zerrendaren arabera (1., 2. eta 3 eranskinak), edo hori eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.

2.1.5.- Estar en posesión de la formación específica exigida del puesto, según RPT en vigor (Anexo 1, 2 y 3) o haber abonado los derechos para su expedición.

Atzerrian lortutako tituluren bat aurkeztuz gero, titulu horren baliozkotzea edota homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria izan beharko da.

En el caso de las titulaciones obtenidas en el extranjero se deberá estar en posesión de la correspondiente convalidación o de la credencial que acredite, en su caso, la homologación.

2.1.6.- Euskararen jakite maila egiaztatzen duen C1/C1 hizkuntza-eskakizuna edo titulazio edo ziurtagiri baliokidea edukitzea. Edo bestela, ikasketa ofizialak euskaraz egin izanaren egiaztagiria izatea eta, horregatik, euskara maila hizkuntz tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsita egotea egiaztatu behar da.

2.1.6.- Tener acreditado el Perfil preceptivo C1/C1 o título o certificado equivalente de conocimientos de euskera; o acreditación del reconocimiento de estudios oficiales realizados en euskera que supongan la exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas.

2.1.7.- Epai irmo bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik (sexu-erasoa eta -abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa, adingabeak galbidean jartzea eta gizakien salerosketa).

2.1.7.- No haber sido condenado por sentencia firme por algún delito contra la libertad e indemnidad sexual, que incluye la agresión y abuso sexual, acoso sexual, exhibicionismo y provocación sexual, prostitución y explotación sexual y corrupción de menores, así como por trata de seres humanos.

2.2.- Oinarri honetan ezarritako baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

2.2.- Todos los requisitos enumerados en la presente base deberán poseerse en el día de finalización del plazo de presentación de instancias.

2.3.- 2.1.5 eta 2.1.6 oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten izangaiek parte hartu ahal izango dute prozesuan, baina ezingo dira 3229 Irakaslea (Hizkuntzaren Pedagogia- Pianoa) , 3238 Irakaslea (Piano modernoa) eta 3259 Irakaslea (Bateria-Perkusioa) lanpostuen lan poltsan sartu, eta soilik lanpostua osatzen duten espezialitateetan aldi baterako programak egiteko hautagaien zerrendaren parte izateko aukera izango dute, espezialitate bakoitzari dagozkion probak gaindituz gero.

2.3.- Podrán participar en el proceso las personas aspirantes que no reúnan los requisitos establecidos en las bases 2.1.5 y 2.1.6, pero no podrán ser incluidos en la bolsa de trabajo de los puestos 3229 Profesor/a (Pedagogía del Lenguaje-Piano), 3238 Profesor/a (Piano Moderno) y 3259 Profesor/a (Batería-Percusión) y sólo podrán formar parte de la lista de personas candidatas para la realización de programas temporales en las especialidades que lo integran, en el caso de superar las pruebas correspondientes a cada especialidad.

## Hirugarrena. Eskabideak aurkeztea.

## Tercera. Presentación de instancias.

3.1.- Donostiako Udalaren Administrazio Elektronikoaren Erregelamenduak (2008ko ekainaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 119. zenbakia), 2022ko irailaren 29ko Osoko Bilkurak onetsitako aldaketaren ondoren (2022ko abenduaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 233 zk.), 28.4 artikuluan adierazten du hautaketa-prozesu bakoitzaren deialdian ezarri ahal izango dela Donostiako Udalarekin eta haren erakunde publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko betebeharra.

3.1.- El Reglamento de Administración Electrónica del Ayuntamiento de San Sebastián (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 119, de 23 de Junio de 2008) tras la modificación aprobada por el Pleno de fecha 29 de septiembre de 2022 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 233 de 12 de diciembre de 2022), en su artículo 28.4 señala la posibilidad de poder establecer en la convocatoria de cada proceso selectivo, la obligatoriedad de relacionarse con el Ayuntamiento de San Sebastián y sus organismos públicos a través de medios electrónicos.

Horrekin bat etorriz, deialdi honetan, hautagaiek bitarteko elektronikoen bidez egin beharko dituzte prozesuarekin zerikusia duten jarduketa eta izapide guztiak, eta udal-administrazioarekin harremanetan jartzeko betebeharra izango dute, bitarteko elektronikoen bidez.

De conformidad con ello, en esta convocatoria, las personas aspirantes deberán realizar por medios electrónicos todas las actuaciones y trámites relacionados con el mismo, quedando obligadas a relacionarse con la Administración municipal a través de medios electrónicos.

3.2.- Eskabideak aurkezteko modua.

3.2.- Forma de presentación de solicitudes.

Parte hartzeko eskabidea Donostiako Udalaren web orriaren bidez aurkeztuko da, "Lan eskaintza" atalaren barruan, deialdiaren aipamenean (identifikazioa eta sinadura elektronikoa behar dira).

La solicitud de participación se presentará mediante la página web del Ayuntamiento de San Sebastián www.donostia.eus dentro del apartado "Oferta de Empleo" en la reseña de la convocatoria (requiere identificación y firma electrónica).

Eskabideak bost (5) egun balioduneko epean aurkeztuko dira, deialdi honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Las solicitudes de participación se presentarán en el plazo de cinco (5) días hábiles contados a partir del siguiente a la publicación del anuncio de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3.3.- Interesdunak hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatuko du, eskabide-orriaren atal guztiak betez, eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikuluarekin bat etorriz, erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du, parte hartzeko baldintza guztiak betetzen dituela adieraziz, egiazkoak direla baldintzak betetzeari buruz aitortutako datuak, eta konpromisoa hartzen duela aitortutako datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko. Erantzukizunpeko adierazpena aipatutako 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

3.3.- La persona interesada solicitará participar en el proceso selectivo cumplimentando todos los apartados del formulario de solicitud y realizará, de conformidad con el artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, una declaración responsable señalando que cumple todos los requisitos de participación, que son ciertos los datos declarados sobre el cumplimiento de los requisitos, y que se compromete a acreditar documentalmente todos los datos declarados. La declaración responsable se efectuará de conformidad con lo establecido en el artículo 69 de la citada Ley 39/2015.

3.4.- Eskabidean adierazi beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako zeinetan egin nahi dituzten ariketak.

3.4.- Deberá indicarse en cuál de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca se desea realizar los ejercicios.

3.5.- Eskabidea garaiz eta behar bezala aurkezten ez bada, izangaia ez da onartuko.

3.5.- La no presentación de la solicitud en tiempo y forma supondrá la inadmisión de la persona aspirante al proceso selectivo.

## Laugarrena. Izangaiak onartzea.

## Cuarta. Admisión de aspirantes.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, dagokion organoak ebazpena emango du, eta ebazpenean ontzat emango da onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda. Hiru (3) laneguneko epea emango da akatsak edo izangaiak baztertzea eragin duten hutsegiteak zuzentzeko, edo zerrenden aurkako erreklamazioak egiteko.

Expirado el plazo de presentación de instancias, el órgano competente dictará resolución aprobando la lista provisional de personas aspirantes admitidas y excluidas, concediéndose un plazo de tres (3) días hábiles para subsanar defectos u omisiones que hubieran motivado la exclusión, o para plantear reclamaciones contra las listas.

Ebazpen horretan izendatuko dira epaimahaiko kideak, eta zehaztuko dira ariketen eguna eta tokia. Hori guztia argitaratuko da Musika eta Dantza Eskolako iragarki taulan eta www.donostia.eus Donostiako Udalaren web orrian, "Lan eskaintza" atalaren barruan, deialdiaren aipamenean.

En dicha resolución se nombrará a las personas integrantes del Tribunal y se determinarán, asimismo, el lugar y fecha de los ejercicios, todo lo cual se publicará en el Tablón de Anuncios de la Escuela de Música y Danza y en la página web del Ayuntamiento de San Sebastián, www.donostia.eus, dentro del apartado "Oferta de Empleo" en la reseña de la convocatoria.

Deialdiaren gainerako iragarkiak aipatutako hedabideetan argitaratuko dira.

El resto de anuncios de la convocatoria serán igualmente publicados en los medios citados.

Erreklamaziorik egiten ez bada, behin-behineko zerrenda hori behin betikotzat hartuko da besterik gabe. Erreklamaziorik egiten bada, behin betiko zerrenda onartuko duen beste ebazpen baten bidez onetsi edo ezetsiko dira. Ebazpen hori ere argitara emango da lehen adierazitako eran.

La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se produjeran reclamaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva, que se hará pública en la forma indicada.

Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izango dute, kautelaz, behin betiko ebazpenean baztertutako pertsonek, ebazpen horren errekurtsoa aukeztu badute ariketak egin baino lehenago eta errekurtso hori oraindik ebatzi ez bada.

Podrán tomar parte en el proceso selectivo, de forma cautelar, las personas excluidas en la lista definitiva que hayan presentado con antelación a la celebración de los ejercicios recurso ante la misma si éste no ha sido resuelto.

## Bosgarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

5.1. Izendapena:

Eskumena duen organoak Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatuko ditu. Epaimahai Kalifikatzailea arduratuko da hauta proben garapenaz eta kalifikazioaz.

Izendapenak eta onartutakoen eta bazter utzitakoen behin-behineko zerrenda egun berean argitaratuko dira Laugarren Oinarrian adierazitako lekuetan.

5.2. Osaera:

Epaimahai Kalifikatzaileak kide hauek izango ditu: lehendakari bat, idazkari bat eta bi epaimahaikide; bai eta haien ordezkoak ere. Epaimahaiko kide guztiak karrerako funtzionarioak izango dira, deialdiko plazetan sartzeko eskatutako tituluen parekoak edo goragokoak dituztenak eta, boto

## Quinta. Tribunal calificador.

5.1. Nombramiento:

El órgano competente nombrará a las personas integrantes del Tribunal Calificador, que se encargará del desarrollo y la calificación de las pruebas selectivas.

Los nombramientos se publicarán en los medios mencionados en la Base Cuarta, conjuntamente con la relación provisional de personas admitidas y excluidas.

5.2. Composición:

El Tribunal Calificador estará integrado por una Presidenta o Presidente, un Secretario o Secretaria y dos vocales, así como por sus correspondientes suplentes. Todas las personas integrantes del Tribunal deberán ser funcionarias o funcionarios de carrera con un nivel de titulación igual o superior al

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

eskubidea dutenen gutxienez erdiak, sartzeko eskatutako jakintza arloari dagokion tituluren bat dutenak.

exigido para el ingreso en las plazas convocadas, y la mitad al menos de quienes tienen derecho a voto con una titulación correspondiente al mismo área de conocimientos que la exigida para el ingreso.

Epaimahaiaren osaerak orekatua izango da, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen artean.

La composición del tribunal será equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada

Epaimahaiak aholkulari espezialistak sar ditzake bere lanetan, hautapen prozesuko proba batzuetarako edo guztietarako. Aholkulari espezialistek hitza izango dute, baina ez botoa, eta epaimahaiari beren espezialitate teknikoetan laguntzera mugatuko dute beren jarduna.

El Tribunal podrá disponer la incorporación a sus trabajos de personas asesoras especialistas, para todas o algunas de las pruebas del proceso selectivo. Las personas asesoras especialistas, que tendrán voz pero no voto, limitarán su actuación a colaborar con el Tribunal en el ejercicio de sus especialidades técnicas.

5.3. Prozeduran parte ez hartzea eta errefusatzea:

5.3. Abstención y recusación:

Epaimahaiko kideek eta aholkulari espezialistek jarduteari uko egin beharko diote, edota interesatuek edozein unetan ezetsi ahal izango dituzte, baldin eta 2015eko urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeko 23 artikuluan ezarritako egoeraren bat gertatzen bada edo dagokion deialdia argitaratu aurretiko bost urteetan hauta probetarako izangaiak prestatzeko lanetan aritu badira kide eta aholkulari horiek.

Las personas integrantes del Tribunal y las personas asesoras especialistas deberán abstenerse de actuar, o podrán ser recusadas en cualquier momento por las personas interesadas, si concurre alguno de los motivos de abstención previstos en el artículo 23 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, o si hubiesen realizado tareas de preparación de aspirantes a pruebas selectivas en los cinco años anteriores a la publicación de la correspondiente convocatoria.

Epaimahaia eratzeko bilkuran, epaimahaiburuak egoera horietako batean ere ez izatearen adierazpen formala egingo du, eta ondoren epaimahaiko gainerako kideei galdatuko die horrexen adierazpen formala egin dezaten. Eratzeko bilkuran parte hartu ez duten epaimahaiko kideek, eta aholkulari espezialistek, adierazpen formal hori egingo dute parte hartzen duten lehendabiziko bilkuran.

En la sesión de constitución del Tribunal, la persona que ostente la presidencia realizará una declaración formal de no hallarse incursa en ninguna de estas circunstancias y acto seguido exigirá al resto de componentes del Tribunal una declaración formal en el mismo sentido. Las personas integrantes del Tribunal que no hayan participado en la sesión de constitución, así como las personas asesoras especialistas, realizarán esa declaración formal en la primera sesión en la que participen.

5.4. Jarduteko arauak:

5.4. Reglas de actuación:

Epaimahaiak 2015eko urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeko 15. artikulutik 18.era bitartean ezarritako arauak ere bete beharko ditu bere jardunean. Epaimahaikideak lehendakariaren aginduz bilduko dira, aldez aurretik idazkariak bilerarako deia egin duela. Epaimahaia bilerak egin, gaiak aztertu eta erabakiak hartzeko balio osoz eratzeko, nahitaezkoa da lehendakaria eta idazkaria (hala dagokionean, haien ordezkariak) eta gutxienez epaimahaikideen erdia bileran izatea edo urrutitik parte hartzea.

El Tribunal, ajustará su actuación a las reglas establecidas en los artículos 15 a 18 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público. Para su válida constitución el Tribunal se reunirá previa convocatoria de su Secretario o Secretaria, por orden de su Presidenta o Presidente, siendo necesaria para su válida constitución a efectos de la celebración de sesiones, deliberaciones y toma de acuerdos, la asistencia, presencial o a distancia, del Presidente o Presidenta y del Secretario o Secretaria, o, en su caso, de quienes les suplan, y de la mitad, al

menos, de sus integrantes.

Lehenengo bilera –Epaimahai Kalifikatzailea orduan eratuko da– hauta probak hasi baino lehenago egingo da, behar adina denborarekin. Dena dela, idazkaria eta kide anitzeko organoko kide guztiak (edo, hala badagokio, haien ordezkariak) bertan badaude edo urrutitik parte hartzen ari badira, kide anitzeko organo gisa balio osoz eratu ahal izango dira bilerak egin, gaiak aztertu eta erabakiak hartzeko, aldez aurretik deialdirik egin behar izanik gabe, hala erabakitzen badute kide guztiek.

La primera sesión, en la que se constituirá el Tribunal Calificador, tendrá lugar con antelación suficiente al inicio de las pruebas selectivas. No obstante, cuando estuvieran reunidos, de manera presencial o a distancia, el Secretario o Secretaria y todas las personas integrantes del órgano colegiado, o en su caso las personas que les suplan, éstos podrán constituirse válidamente como órgano colegiado para la celebración de sesiones, deliberaciones y adopción de acuerdos sin necesidad de convocatoria previa cuando así lo decidan todas las personas integrantes del mismo.

Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa, idazkariak izan ezik, hizpidea bai baina botorik ez baitu izango hark. Bileran daudenen botoen gehiengoarekin hartuko dira erabakiak. Berdinketak lehendakari jarduten duenaren kalitatezko botoaren bidez erabakiko dira.

Todas las personas integrantes del Tribunal tendrán voz y voto, con excepción del Secretario o Secretaria que actuará con voz pero sin voto. Los acuerdos serán adoptados por mayoría de votos de las personas presentes. Los empates se resolverán por el voto de calidad de quien ejerza la presidencia.

Epaimahaiko kide titularren bat kanpoan edo gaixorik bada, edo, oro har, bidezko arrazoirik bada, ordezkoa jarriko da haren tokian.

En caso de ausencia o de enfermedad y, en general, cuando concurra alguna causa justificada, las personas titulares del Tribunal serán sustituidas por sus respectivas suplentes.

Epaimahaiburuaren eta haren ordezkoaren postuak hutsik geratu badira, bertan ez badira, gaixo badira edo legezko beste kausaren bat gertatu bazaie, epaimahaikide batek ordeztuko ditu, epaimahaia izendatzeko ebazpenean ageri diren ordenan.

En caso de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal que afecte a la Presidenta o Presidente y a su suplente, serán sustituidas por un o una vocal en función de su orden en la resolución de nombramiento del Tribunal.

Idazkari titularraren edo haren ordezkoaren kargua hutsik badago, kanpoan edo gaixorik bada edo legezko bestelako kausaren bat gertatzen bada, edozein epaimahaikidek bete ahal izango du kargu hori, baldin eta kideen botoen gehiengoak hala onartzen badu.

La sustitución del Secretario o Secretaria y de su suplente, en los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal, recaerá en cualquier otra persona integrante del Tribunal elegido por acuerdo mayoritario de éste.

Kide anitzeko organoko kide batek idazkaria ordezten badu, kide horrek kide gisa dituen eskubide guztiak gordeko ditu.

En caso de que el Secretario o Secretaria sea suplida por una persona integrante del órgano colegiado, ésta conservará todos sus derechos como tal.

5.5. Ahalmenak:

5.5. Facultades:

Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren objektibotasunaren arduradun izango da eta deialdiko oinarriak betetzen direla bermatuko du. Bere jardunean, independentziaren eta eskumenekotasun teknikoaren printzipioak bermatuko dira.

El Tribunal actuará con plena autonomía funcional, será responsable de la objetividad del procedimiento y garantizará el cumplimiento de las bases de la convocatoria. En su actuación se garantizarán los principios de independencia y discrecionalidad técnica.

Era berean, oinarri hauek eta deialdi bakoitzeko oinarri bereziak ezartzean sortutako zalantza

Asimismo, de acuerdo con el ordenamiento jurídico, el Tribunal resolverá todas las dudas que surjan en

guztiak Epaimahaiak argitu behar ditu, antolamendu juridikoaren arabera. Deialdia ongi garatzeko beharrezko erabakiak hartu behar ditu, betiere oinarrietan jaso ez diren kasuetarako zer irizpide hartu behar diren zehaztuz.

la aplicación de las presentes bases y de las bases específicas de cada convocatoria, y tomará los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo de la convocatoria, estableciendo los criterios que deban adoptarse en relación con los supuestos no previstos en las bases.

Idazkariari dagokio kide anitzeko organoaren jardueren legezkotasun formal eta materiala zaintzea, jarduera horiek egiaztatzea eta eratzeko eta erabakiak hartzeko prozedura eta arauak errespetatzen direla bermatzea.

Corresponde al Secretario o Secretaria velar por la legalidad formal y material de las actuaciones del órgano colegiado, certificar las actuaciones del mismo y garantizar que los procedimientos y reglas de constitución y adopción de acuerdos son respetados.

Epaimahaiak, hautaketa prozesuko edozein unetan, jakiten badu izangaietako batek ez dituela deialdiari dagozkion baldintzak betetzen, interesatuarekin audientzia izan eta prozesutik bazter dezan proposatuko dio hartarako aginpidea duen organoari, izangaiak eskarian adierazitako zehaztasun gabezien edo faltsukerien berri ere emanda.

En cualquier momento del proceso selectivo, si el Tribunal tiene conocimiento de la existencia de aspirantes que no cumplen alguno de los requisitos exigidos para participar en la correspondiente convocatoria, previa audiencia de la persona interesada, deberá proponer su exclusión al órgano competente, comunicando las inexactitudes o falsedades formuladas por la persona aspirante en la solicitud de participación.

Oposizio aldiko ariketa idatzien edukiaren isilpekotasuna bermatzeko behar diren neurriak hartuko ditu epaimahaiak, eta baita azterketak, ahal dela, izangaien izena jakin gabe zuzentzea bermatzeko behar direnak ere.

El Tribunal adoptará las medidas oportunas para garantizar la confidencialidad del contenido de los ejercicios escritos de la fase de oposición, así como que sean corregidos garantizando, siempre que sea posible, que no se conozca la identidad de las personas aspirantes.

5.6.- Egoitza.

5.6.- Sede.

Jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako, Epaimahai Kalifikatzaileak Musika eta Dantza Eskolan izango dute egoitza (Atotxako Zelaia Plaza, 3, Donostia).

A efectos de comunicaciones y demás incidencias el Tribunales Calificador tendrán su sede en la Escuela de Música y Danza, sita en la Plaza del Campo de Atotxa 3, de San Sebastián.

**Seigarrena. Oposizio fasea.**

**Sexta. Fase de oposición.**

Oposizio faseak 2 ariketa izango ditu, biak ere baztertzaileak. Gehienez ere 80 puntu lortu ahal izango dira.

La fase de oposición constará de 2 ejercicios eliminatorios. Se podrá obtener un máximo de 80 puntos.

6.1. Deialdi honetako probak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin ditzakete izangaiek.

6.1. Los ejercicios de la presente convocatoria podrán ser realizados en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca.

6.2. Izangaiei deialdi bakarra egingo diete ariketa bakoitzerako. Epaimahaiak ariketak egiteko ezarritako lekuan, egunean eta orduan azaltzen ez diren izangaiak hautaketa prozesutik kanpo geldituko dira behin betiko, baita ezinbesteko arrazoiak izanda ere.

6.2. Las personas aspirantes serán convocadas para cada ejercicio en llamamiento único. Las personas aspirantes que no comparezcan al llamamiento del Tribunal para el desarrollo de los ejercicios en el lugar, fecha y hora que se señale, incluso por razones de fuerza mayor, serán definitivamente excluidas del proceso selectivo.

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

Hala ere, proba bat atzeratzeko erabakia hartu ahal izango da, baldin eta atzerapenak berekin badakar emakumeei tratu kaltegarria saihestea, haurdunaldia nahiz amatasuna dela-eta. Atzeratzeko eskaerarekin batera, alegatzen duen gorabehera egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu kasuan kasuko izangaiak.

No obstante, se podrá acordar el aplazamiento de la realización de una prueba en aquellos supuestos en los que la concesión del aplazamiento suponga evitar un trato desfavorable a las mujeres relacionado con el embarazo o la maternidad. Junto con la solicitud de aplazamiento se deberá adjuntar la documentación acreditativa de la circunstancia que alegue.

Epaimahai Kalifikatzaileak izangaiei edozein unetan eska diezaieke identifika daitezen. Beraz, izangaiek, ariketak egitera datozenean, Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo gidabaimena ekarri beharko dute; edo, atzerritarra izanez gero, dokumentu horien baliokideren bat.

El Tribunal Calificador puede requerir a las personas aspirantes en todo momento para que se identifiquen, por lo que deberán acudir a la realización de los ejercicios provistas de Documento Nacional de Identidad, pasaporte o permiso de conducir, o documento equivalente en el caso de las personas extranjeras.

6.3. Hauta probak egiteko, eskatzen duten desgaitasuna duten pertsonentzat arrazoizko diren denbora eta bitarteko doitzeak eta egokitzeak ezarriko dira, betiere probaren edukia indargabetu gabe, eta zailtasun maila edo eskakizun maila jaitsi gabe.

6.3 Para la realización de las pruebas selectivas se establecerán para las personas con discapacidad que lo soliciten las adaptaciones y los ajustes razonables de tiempo y medios, siempre que no se desvirtúe el contenido de la prueba ni se rebaje el nivel de dificultad o el grado de exigencia.

Desgaitasunen bat duten pertsonek parte hartzeko eskabide inprimakian adierazi beharko dute ea hauta probak egiteko denbora eta bitarteko doitzeak eta egokitzeak behar dituzten ala ez.

Las personas con discapacidad, deberán indicar en el formulario de solicitud de participación si necesitan o no adaptaciones y ajustes de tiempo y medios para la realización de las pruebas selectivas.

Egokitzeak eta doitzeak beharko dituztela inprimaki horietan adierazi duten izangaiek, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzearekin batera emango zaien 10 egun balioduneko epean, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Probak egiteko dituzten behar bereziak adierazten dituen idazki originala.
- Desgaitasun maila kalifikatzeko eskumena duen organo teknikoak emandako ebazpena edo egiaztagiria (originala edo kopia konpultsatua). Agiri horretan, modu fede-emailean egiaztatuko dira izangaiari onartu zaion desgaitasun maila eta desgaitasun maila hori eragin duten gabezia iraunkorrak.

Las personas aspirantes que en el citado formulario hayan señalado que sí necesitarán adaptaciones y ajustes, deberán presentar, en el plazo de 10 días hábiles que se les concederá junto con la publicación de la lista provisional de personas admitidas y excluidas, la siguiente documentación:

- Un escrito original en el que se indiquen las necesidades específicas que tienen para el desarrollo de las pruebas.
- Una resolución o un certificado, original o mediante copia compulsada, emitido por el órgano técnico competente para la calificación del grado de discapacidad, acreditando de forma fehaciente el grado de discapacidad reconocido y las deficiencias permanentes que han dado origen al grado de discapacidad.

Agiri horiek, adierazitako epearen barruan aurkeztu beharko dituzte, hala behin-behineko zerrenda horretan onartuek nola baztertuek. Izan ere, ez zaie beste eperik emango behin-behineko zerrendan baztertuta ziren eta behin betiko zerrendan onartuta direnei.

Deberán presentar esa documentación dentro del plazo indicado tanto las personas admitidas como las excluidas en la citada lista provisional, dado que no se otorgará un nuevo plazo a quienes estando excluidas en la lista provisional pasen a estar admitidas en la lista definitiva.

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

Epaimahai Kalifikatzaileari dagokio, aurkeztutako agiriak ikusita, hauta proba bakoitzaren gorabehera berezien arabera ea egokitzeak egin behar diren eta nola gauzatu behar diren ebaztea. Egokitzeak ez dira automatikoki onartuko, baizik eta egin beharreko probarekin zuzeneko zerikusia duten desgaitasuna denean.

Corresponde al Tribunal Calificador, a la vista de la documentación aportada, resolver la procedencia y concreción de las adaptaciones en función de las circunstancias específicas de cada prueba selectiva. Las adaptaciones no se otorgarán de forma automática, sino únicamente en aquellos casos en que la discapacidad guarde relación directa con la prueba a realizar.

Epaimahai Kalifikatzaileak izangaiari egiaztagiri edo informazio gehigarriak eskatu ahal izango dizkio, aurrez eskatutako egokitzeak onartu behar zaizkion balioztatu ahal izateko. Era berean, epaimahaiak zerbitzu espezializatuen txostena eta, hala badagokio, haien laguntza eskatu ahal izango du.

El Tribunal Calificador podrá solicitar a la persona aspirante certificados o informaciones adicionales a efectos de poder valorar la concesión de las adaptaciones previamente solicitadas. Asimismo, el Tribunal podrá recabar informe y, en su caso, colaboración de servicios especializados.

6.4. Hautaketa-prozesuan parte hartzen jarraitu ahal izango dute, kautelaz, ariketa bat ez gainditzeagatik baztertutako izangaiek, epaimahaiaren erabakiaren errekurtsoa aukeztu badute eta errekurtso hori oraindik ebatzi ez bada. Horretarako, errekurtsoan argi eta modu frogagarrian adierazi beharko da prozesuan parte hartzen jarraitu nahi dela.

6.4. Podrán continuar participando en el proceso selectivo, de forma cautelar, las personas eliminadas por no haber superado algún ejercicio que hayan presentado recurso ante el acuerdo del Tribunal Calificador, si éste no ha sido resuelto. Para ello, el recurso deberá expresar de forma clara y fehaciente la voluntad de continuar participando en el proceso.

6.5. Oposizio fasea ondorengo ariketek osatuko dute:

6.5. Conformarán la fase de oposición los siguientes ejercicios:

**3229 lanpostua Irakaslea (Hizkuntzaren Pedagogia-Pianoa)**

**Puesto 3229 Profesor/a (Pedagogía del Lenguaje-Piano)**

**Lehenengo ariketa: Piano. Nahitaezkoa eta baztertzailea.**

**Primer ejercicio: Piano. Obligatorio y eliminatorio.**

Pianoarekin musika interpretatzeko gaitasunaren ingurukoa.

Relativo a la competencia de interpretación musical con Piano.

Ariketa honetan 40 puntu lortu ahal izango dira, eta gainditzeko gutxieneko puntuazioa 20 puntu izango dira.

El ejercicio se valorará sobre un máximo de 40 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 20 puntos para superarlo.

Izangaiak libreki aukeratutako obra bat interpretatuko da, eta gutxienez 5 minutuko iraupena izango du guztira.

Consistirá en la interpretación de una obra elegida libremente por la persona aspirante, con una duración total mínima de 5 minutos.

Hautagaiaren adierazpen- eta teknika-gaitasunak baloratuko dira, jarrera eta jarrera-kontrola barne.

Serán valoradas las capacidades expresiva y técnica de la persona candidata, incluyendo su posición y control postural.

**Bigarren ariketa: Hizkuntzaren Pedagogia. Praktikoa. Nahitaezkoa eta baztertzailea.**

**Segundo ejercicio: Pedagogía del Lenguaje. Práctico. Obligatorio y eliminatorio.**

Ariketa honetan, izangaiak Hizkuntzaren Pedagogiaren esparruan (Musika eta Mugimendua,

El ejercicio consistirá en la realización de pruebas para determinar las competencias docentes de la

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

Musika eta Musika Hizkuntza Tailerra) dituen irakaskuntza-gaitasunak zehazteko probak egingo dira.

persona aspirante en el ámbito de la Pedagogía del Lenguaje (Música y Movimiento, Taller de Música y Lenguaje Musical).

Ariketa honetan, gehienez, 40 puntu lortuko dira. Gutxienez 20 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

El ejercicio se valorará sobre un máximo de 40 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 20 puntos para superarlo.

Oinarri hauetako 4. ERANSKINean jasotako egoeretako bati erantzungo dion proposamen pedagogiko pertsonala epaimahaiaren aurrean ahoz azaltzea eta horri buruzko galderei erantzutea.

Exponer oralmente ante el tribunal la propuesta pedagógica personal que dé respuesta a una de las situaciones recogidas en el ANEXO 4 de estas bases y responder a preguntas sobre la misma.

Probaren egunean, epaimahaiak 4. ERANSKINean jasotakoetatik, egoera bat aukeratuko du eta izangaiak Epaimahaiak zehaztutako prestakuntza denbora izango du azalpena hasi aurretik. Izangaiak ezingo du erabili probako ikasgelak izango duen arbelaz gain inolako material gehigarririk, baina gidoi bat erabili ahal izango du. Gidoia erabiliz gero, epaimahaiari eman beharko dio proba amaitzerakoan.

En el día de la prueba, el tribunal escogerá una situación de entre las recogidas en el ANEXO 4 y la persona aspirante dispondrá del tiempo que el Tribunal determine para la preparación antes de comenzar la exposición. La persona aspirante no podrá utilizar material adicional a la pizarra con que contará el aula de la prueba, si bien podrá utilizar un guión, que deberá entregar al tribunal al finalizar la presentación.

Honako hauek baloratuko dira: ezagutzak eta zuzentasun teknikoa (sakontze maila, edukiaren eguneratze maila, lexiko zuzenaren erabilera), bai eta azalpena argia eta koherentea izatea ere.

Serán valorados los conocimientos y corrección técnica (nivel de profundización, nivel de actualización del contenido, corrección de uso del léxico), así como la claridad y coherencia en la exposición.

## 3238 Lanpostua Irakaslea (Piano modernoa)

## Puesto 3238 Profesor/a (Piano moderno)

### Lehen ariketa. Nahitaezkoa eta baztertzailea.

### Primer ejercicio. Obligatorio y eliminatorio.

Musika modernoari eta herri-musikari buruzko ezagutza teoriko eta aplikatuei buruzkoa.

Relativo a los conocimientos teóricos y aplicados sobre música moderna y popular.

Ariketa honetan 30 puntu lortu ahal izango dira, eta gainditzeko gutxieneko puntuazioa 15 puntu izango dira.

El ejercicio se valorará sobre un máximo de 30 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 15 puntos para superarlo.

Hainbat aukerako erantzunak dituzten galderen sorta bati idatziz erantzun beharko zaio 5. ERANSKINean jasotako gaitegiari buruz. Galdera bakoitzak erantzun zuzen bakarra izango du.

Consistirá en contestar por escrito a un cuestionario de preguntas con respuestas alternativas referidas al temario del ANEXO 5. Cada pregunta tendrá una única respuesta correcta.

Ariketa honen puntuazio zuzena (P), honako formula hau aplikatuz lortuko da: zuzeneko puntuazioa (P) da erantzun zuzenen kopurua (A) ken erantzun okerren (E) kopuruaren laurden bat; hau da, P = A - E/4. Efektu hauetarako, erantzuten ez diren galderak ez dira okertzat emango.

La puntuación directa de este ejercicio será el resultado de aplicar la siguiente fórmula: puntuación directa (P) es igual a número de aciertos (A) menos la cuarta parte del número de errores (E); es decir, P = A - E/4. A estos efectos, las preguntas no contestadas no tendrán la consideración de error.

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

**Bigarren ariketa. Nahitaezkoa eta baztertzailea.**

Izangaiak musikari modura dituen gaitasun profesionalak zehazteko probak egitean datza ariketa.

Ariketa honetan, gehienez, 50 puntu lortuko dira. Gutxienez 25 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

Ariketa honek bi atal izango ditu: A) atala, B) atala. Bi atalak baztertzaileak izango dira.

**a) A atala**

Pianoarekin musika interpretatzeko gaitasunaren ingurukoa.

Ondorengo kanta jo beharko da:

- All the things you are (J.Kern & O.Hammerstein II)

Izangaia laguntzaileekin joan ahal izango da probara. Eskolak pianoa, teklatua, anplifikazio-ekipoa eta duen perkusio materiala utziko ditu. Gainerako materiala hautagaiek eraman beharko dute.

Kantaren moldaketak, gehienez 5 minutuko iraupena izango duenak, 180 eta 240 bpm arteko abiaduran interpretatu behar da eta inprobisazioko 2 koru izan behar ditu gutxienez.

Atal honetan 30 puntu lortu ahal izango dira, gehienez. Gutxienez 15 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

**b) B atala**

Musika bat-batean irakurtzeko eta inprobisatzeko gaitasunaren ingurukoa.

Bat-bateko irakurketa eta inprobisazioa.

Musika-zati bat edo batzuk interpretatuko dira. Musika-notazioa, letra, melodiarik gabeko zifratu harmonikoak eta testuan interpretatzeko jarraibideak izan ditzakete. Izangaiak 5 minutu izango ditu interpretazioari ekin aurretik materiala irakurtzeko.

**Segundo ejercicio. Obligatorio y eliminatorio.**

El ejercicio consistirá en la realización de pruebas para determinar las competencias profesionales musicales de las personas aspirantes.

El ejercicio se valorará sobre un máximo de 50 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 25 puntos para superarlo.

Este ejercicio constará de dos apartados: apartado A) y apartado B). Cada uno de los apartados serán eliminatorios.

**a) Apartado A**

Relativo a la competencia de interpretación musical con piano.

Se deberá tocar el siguiente tema:

- All the things you are (J.Kern & O.Hammerstein II)

La persona aspirante podrá acudir a la prueba con acompañantes. La Escuela facilitará un piano, un teclado, equipo de amplificación, así como el material de percusión del que dispone. El resto de material deberá ser aportado por las personas aspirantes.

El arreglo del tema, que no podrá superar los 5 minutos de duración, debe interpretarse a un tempo entre 180 y 240 bpm y contener un mínimo de 2 coros de improvisación.

Este apartado se valorará sobre un máximo de 30 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 15 puntos para superarlo.

**b) Apartado B**

Relativo a la competencia de lectura a vista e improvisación.

Lectura a vista e improvisación.

Consistirá en la interpretación de uno o varios extractos musicales, que podrán contener notación musical, cifrados armónicos sin melodía e instrucciones de interpretación en texto. La persona aspirante dispondrá de 5 minutos para leer el material antes de proceder a la interpretación.

Epaimahaiak zehaztuko proba egiten denean, interpretazioa oinarri musikal baten gainean egingo den, laguntzarekin ala laguntzarik gabe. Soinu proba egiteko denbora ematen duen zehaztu ahal izango du.

El Tribunal determinará, en el momento de la prueba, si la interpretación se realizará sobre bases musicales pregrabadas, con acompañamiento o sin él. Podrá asimismo determinar si se otorga un tiempo para realizar una prueba de sonido.

Atal honetan 20 puntu lortu ahal izango dira, gehienez. Gutxienez 10 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

Este apartado se valorará sobre un máximo de 20 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 10 puntos para superarlo.

Bi ataletan hautagaiaren teknika eta adierazpen gaitasunak baloratuko dira, jarrera eta jarrera kontrola barne. Honako hauek ere baloratuko dira: inprobisazioaren eta egitura harmonikoaren arteko lotura, diskurtso melodikoaren garapena, testuinguru musikalera egokitzea, barietate erritmikoa eta dinamikaren erabilera.

En ambos apartados serán valoradas las capacidades técnica y expresiva de la persona candidata, incluyendo su posición y control postural, así como la conexión de la improvisación con la estructura armónica, el desarrollo del discurso melódico, la adaptación al contexto musical, la variedad rítmica y el uso de la dinámica.

**3259 lanpostua Irakaslea (Bateria-Perkusioa)**

**Puesto 3259 Profesor/a (Batería-Percusión)**

**Lehenengo ariketa. Bateria. Nahitaezkoa eta baztertzailea.**

**Primer ejercicio. Batería. Obligatorio y eliminatorio.**

Izangaiak bateria espezialitatean musikari modura eta irakasle modura dituen gaitasun profesionalak zehazteko probak egitean datza ariketa.

El ejercicio consistirá en la realización de pruebas para determinar las competencias profesionales musicales y docentes de las personas aspirantes en la especialidad de batería.

Ariketa honetan 40 puntu lortu ahal izango dira, eta gainditzeko gutxieneko puntuazioa 20 puntu izango dira. Bi atal izango ditu: A) atala, B) atala. Ataletako bakoitza baztertzailea izango da.

El ejercicio se valorará sobre un máximo de 40 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 20 puntos para superarlo. Constará de dos apartados: apartado A) y apartado B). Cada uno de los apartados serán eliminatorios.

**a) A atala**

**a) Apartado A**

Bateriarekin musika interpretatzeko gaitasunaren ingurukoa.

Relativo a la competencia de interpretación musical con batería.

Atal honetan, gehienez, 25 puntu lortuko dira. Gutxienez 12.5 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

El apartado se valorará sobre un máximo de 25 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 12.5 puntos para superarlo.

Izangaiak libreki aukeratutako obra bat interpretatuko da, eta gutxienez 5 minutuko iraupena izango du guztira.

Consistirá en la interpretación de una obra elegida libremente por la persona aspirante, con una duración total mínima de 5 minutos.

Izangaia laguntzaileekin joan ahal izango da probara. Eskolak pianoa, teklatua, anplifikazio-ekipoa eta duen perkusio materiala utziko ditu. Gainerako materiala hautagaiek eraman beharko dute.

La persona aspirante podrá acudir a la prueba con acompañantes. La Escuela facilitará un piano, un teclado, equipo de amplificación, así como el material de percusión del que dispone. El resto de material deberá ser aportado por las personas aspirantes.

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

Hautagaiaren adierazpen- eta teknika-gaitasunak baloratuko dira, jarrera eta jarrera-kontrola barne.

Serán valoradas las capacidades expresiva y técnica de la persona candidata, incluyendo su posición y control postural.

**b) B atala**

**b) Apartado B**

Atal honen helburua da izangaiak bateriaren esparruan dituen irakaskuntza-gaitasunak zehaztea.

El apartado tiene por objeto determinar las competencias docentes de la persona aspirante en el ámbito de la batería.

Atal honetan, gehienez, 15 puntu lortuko dira. Gutxienez 7.5 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

El apartado se valorará sobre un máximo de 15 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 7.5 puntos para superarlo.

Musika eta Dantza Eskoletako 2. mailako espezialitatearen programazioaren propoposamen bat aurkeztu beharko du izangaiak ahoz epaimahaiaren aurrean 10 minutuz gehienez eta horri buruzko galderei erantzun.

Consistirá en presentar oralmente ante el Tribunal, durante un máximo de 10 minutos, una propuesta de programación de la especialidad de 2º nivel de las Escuelas de Música y Danza, y responder a preguntas al respecto.

Honako hauek baloratuko dira: ezagutzak eta zuzentasun teknikoa (sakontze maila, edukiaren eguneratze maila, lexiko zuzenaren erabilera), bai eta azalpena argia eta koherentea izatea ere.

Serán valorados los conocimientos y corrección técnica (nivel de profundización, nivel de actualización del contenido, corrección de uso del léxico), así como la claridad y coherencia en la exposición.

**Bigarren ariketa. Perkusioa. Nahitaezkoa eta baztertzailea.**

**Segundo ejercicio. Percusión. Obligatorio y eliminatorio.**

Izangaiak perkusio espezialitatean musikari modura eta irakasle modura dituen gaitasun profesionalak zehazteko probak egitean datza ariketa.

El ejercicio consistirá en la realización de pruebas para determinar las competencias profesionales musicales y docentes de las personas aspirantes en la especialidad de percusión.

Ariketa honetan 40 puntu lortu ahal izango dira, eta gainditzeko gutxieneko puntuazioa 20 puntu izango dira. Bi atal izango ditu: A) atala, B) atala. Ataletako bakoitza baztertzailea izango da.

El ejercicio se valorará sobre un máximo de 40 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 20 puntos para superarlo. Constará de dos apartados: apartado A) y apartado B). Cada uno de los apartados serán eliminatorios.

**a) A atala**

**a) Apartado A**

Perkusioarekin musika interpretatzeko gaitasunaren ingurukoa.

Relativo a la competencia de interpretación musical con percusión.

Atal honetan, gehienez, 25 puntu lortuko dira. Gutxienez 12.5 puntu lortu beharko dira atala gainditzeko.

El apartado se valorará sobre un máximo de 25 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 12.5 puntos para superarlo.

Izangaiak libreki aukeratutako obra bat interpretatuko da, eta gutxienez 5 minutuko iraupena izango du guztira.

Consistirá en la interpretación de una obra elegida libremente por la persona aspirante, con una duración total mínima de 5 minutos.

Izangaia laguntzaileekin joan ahal izango da probara. Eskolak pianoa, teklatua, anplifikazio-ekipoa eta duen perkusio materiala utziko ditu. Gainerako materiala hautagaiek eraman

La persona aspirante podrá acudir a la prueba con acompañantes. La Escuela facilitará un piano, un teclado, equipo de amplificación, así como el material de percusión del que dispone. El resto de

beharko dute.

Hautagaiaren adierazpen- eta teknika-gaitasunak baloratuko dira, jarrera eta jarrera-kontrola barne.

**b) B atala**

Atal honen helburua da izangaiak perkusioaren esparruan dituen irakaskuntza-gaitasunak zehaztea.

Atal honetan, gehienez, 15 puntu lortuko dira. Gutxienez 7.5 puntu lortu beharko dira atala gainditzeko.

Musika eta Dantza Eskoletako 2. mailako espezialitatearen programazioaren propoposamen bat aurkeztu beharko du izangaiak ahoz epaimahaiaren aurrean 10 minutuz gehienez eta horri buruzko galderei erantzun.

Honako hauek baloratuko dira: ezagutzak eta zuzentasun teknikoa (sakontze maila, edukiaren eguneratze maila, lexiko zuzenaren erabilera), bai eta azalpena argia eta koherentea izatea ere.

6.6. Epaimahaiak emaitzak argitaratuko ditu Donostiako Udalaren eta Musika Eskolako iragarki taulan eta eta www.donostia.eus Donostiako Udalaren web orrian, "Lan eskaintza" atalaren barruan, deialdiaren aipamenean, eta hamar (10) egun balioduneko epea emango du erreklamazioak aurkezteko.

## Zazpigarrena. Azken kalifikazioa.

Erreklamazioak ebatzi ondoren, oposizio faseko ariketetan eskuratutako puntuazioa izango da izangai bakoitzaren azken kalifikazioa.

Deialdi honetan ez da aplikagarria izango 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, bere 21. artikuluan xedatutako irizpidea, Eskolako irakasle plazetan emakumezkoak % 40 baino gehiago baitira.

Berdinketa emanez gero bigarren ariketan puntu gehien eskuratu dituenaren alde erabakiko da.

material deberá ser aportado por las personas aspirantes.

Serán valoradas las capacidades expresiva y técnica de la persona candidata, incluyendo su posición y control postural.

**b) Apartado B**

El apartado tiene por objeto determinar las competencias docentes de la persona aspirante en el ámbito de la percusión.

El apartado se valorará sobre un máximo de 15 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 7.5 puntos para superarlo.

Consistirá en presentar oralmente ante el Tribunal, durante un máximo de 10 minutos, una propuesta de programación de la especialidad de 2º nivel de las Escuelas de Música y Danza, y responder a preguntas al respecto.

Serán valorados los conocimientos y corrección técnica (nivel de profundización, nivel de actualización del contenido, corrección de uso del léxico), así como la claridad y coherencia en la exposición.

6.6. El Tribunal hará públicos los resultados en el Tablón de Anuncios de la Escuela Municipal de Música y Danza de San Sebastián y en la página web del Ayuntamiento de San Sebastián, www.donostia.eus, dentro del apartado "Oferta de Empleo" en la reseña de la convocatoria y otorgará un plazo de diez (10) días hábiles para interponer reclamaciones.

## Séptima. Calificación final.

Resueltas las reclamaciones, la calificación final de cada aspirante estará constituida por la puntuación obtenida en los ejercicios de la fase de oposición.

En esta convocatoria no resulta de aplicación el criterio recogido en el artículo 21 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, por ser la representación de las mujeres en la plaza de profesor/a de la Escuela superior al 40 %.

En caso de existir empate se resolverá a favor de quien haya obtenido una mayor puntuación en el segundo ejercicio.

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

Berdinketa jarraituz gero lehenengo ariketan puntu gehien eskuratu dituenaren alde erabakiko da.

En el supuesto de mantenerse el empate se resolverá a favor de quien haya obtenido una mayor puntuación en el primer ejercicio.

Berdinketa jarraituz gero zozketa egingo da hurrenkera zehazteko.

En el supuesto de mantenerse el empate se realizará un sorteo para establecer el orden de prelación.

Epaimahai Kalifikatzaileak hautagaien zerrenda bidaliko dio, azken kalifikazioan ezarritako lehentasun-hurrenkeraren arabera, kontratazioa egiteko eta lan poltsak sortzeko eskumena duen organoari.

El Tribunal Calificador elevará la lista de las personas aspirantes por el orden de prelación establecido por la calificación final, al órgano competente para efectuar la contratación y crear las bolsas.

Era berean, organo berari bidaliko dio espezialitate bakoitzeko probak gainditu dituzten izangaien zerrenda, dagokion ariketaren kalifikazioaren lehentasun- ordenaren arabera.

Asimismo, elevará al mismo órgano un listado de las personas aspirantes que hayan superado las pruebas de cada una de las especialidades, por el orden de prelación de la calificación del ejercicio correspondiente.

## Zortzigarrena. Agiriak aurkeztea.

## Octava. Presentación de documentación.

Izangai hautatuek, dagokion bitarteko izendapena formalizatu aurretik, zerbitzuan hasi aurretik, gai kalifikazioa lortu beharko dute azterketa mediko espezifikoan. Azterketa horretan egiaztatu beharko da izangaiak ez duela deialdiko lanpostuari dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik.

Las personas aspirantes seleccionadas, con carácter previo a la formalización del nombramiento interino correspondiente y con carácter previo a la incorporación al servicio, deberán obtener la calificación de aptitud en el reconocimiento médico específico por el que se acredita que la persona aspirante no padece ninguna enfermedad o defecto físico ni psíquico que impida el normal ejercicio de las funciones propias del puesto de trabajo convocado.

Halaber, zerbitzuan hasi aurretik, honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

Asimismo, con carácter previo a la incorporación al servicio deberán presentar la siguiente documentación:

1.- Nortasun Agiri Nazionala edo, kasuan kasu, pasaportea edo nazionalitatea egiaztatzeko beste edozein agiri. Aurkeztuko den agiriak indarrean egon behar du.

1.- El Documento Nacional de Identidad o, en su caso, el pasaporte o cualquier documento acreditativo de la nacionalidad. El documento que se presente deberá encontrarse en vigor.

Hautaketa probetan espainiarren edo Europar Batasuneko kide diren herrialdeetako nazionalen ezkontide direlako edo ezkontidearen seme-alaba direlako parte hartu duten hautagaiek ahaidetasun lotura egon badagoela egiaztatzen duten agiriak, agintari eskudunek eginak, aurkeztu behar dituzte. Horrez gain, lotura hori duen ahaide espainiarraren edo Europar Batasuneko nazionalaren zinpeko aitorpena edo promesa ere aurkeztu behar dute. Aitorpen horretan, ezkontidearengandik zuzenbidez bananduta ez dagoela eta, kasuan kasu, hautagaia ezkontidearen kontura bizi dela edo bere kargu dagoela adierazi behar du espainiarrak edo Europar Batasuneko nazionalak.

En el caso de aspirantes que hayan concurrido a las pruebas selectivas por tratarse de cónyuges, o descendientes del cónyuge, de españoles o nacionales de países miembros de la Unión Europea deberán presentar los documentos expedidos por las autoridades competentes que acrediten el vínculo de parentesco y una declaración jurada o promesa del español o nacional de la Unión Europea con el que existe este vínculo, de que no está separado de derecho de su cónyuge y, en su caso, del hecho de que el aspirante vive a sus expensas o está a su cargo.

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

2.-. Bigarren oinarriaren 2.1.5. atalak aipatutako ikasketa titulua.

3.- Zinpeko aitorpena edo promesa, diziplinazko espedientearen bidez autonomia erkidegoetako Administrazio Publikoetako edo organo konstituzionaletako edo organo estatutarioetako zerbitzutik banatuta ez dagoela, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako, banatu edo gaitasungabetu den kidegoan edo eskalan sartzeko gaitasungabetze erabatekoa edo berezia ez dagoela adierazten duena.

4.- Zinpeko aitorpena edo promesa, Herri Administrazioetan jarduten duten langileen bateraezintasunei buruzko 53/1984 Legean (abenduaren 26koa) xedatutako legezko bateraezintasun kausetako batean ere ez dagoela adierazten duena. Hala ere, izendapenaren aurretik, aipatutako Legean ezarritako aukera gauzatu ahalko da.

5.- Euskararen jakite maila egiaztatzen duen C1/C1 Hizkuntza Eskakizuna edo titulazio edo ziurtagiri baliokidea. Edo bestela, ikasketa ofizialak euskaraz egin izanaren egiaztagiria izatea eta, horregatik, euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsita egotea egiaztatzea.

6.- Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ezezko ziurtagiria. Nolanahi izanda ere, atzerritarrak diren edo beste nazionalitate bat duten herritarrek, aurrekoaz gain, zigor-kondenen gaineko ezezko egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren jatorrizko herrialdeetako edo herritarrak diren herrialdeetako agintariek emana, 2015eko abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuak, Sexu Delitugileen Erregistro Zentrala arautzekoak, 3. artikuluko 1. atalean aipatutako delituak direla-eta.

Izangai hautatuak ez baditu aurkezten eskatutako agiriak, 8.2. eta 8.5 oinarrietan jasotakoak salbu, aldi baterako programak direnean, kide horrekin zerikusia duten jarduera guztiak bertan behera utziko dira. Gainera, gezurra esateagatik eragin dezakeen erantzukizuna bere gain hartu beharko du.

## Bederatzigarrena. Ebaluazio aldia.

Zerbitzu aktiboan sartutako lan poltsako edo aldi baterako programak egiteko hautagaien zerrendako kideek hautaketa-prozesuko ebaluazio-aldi bat gainditu beharko dute.

Ebaluazio-aldiak 4 hilabeteko iraupena izango du.

2.- Titulación académica a que se refiere el apartado 2.1.5. de la Base Segunda.

3.- Declaración jurada o promesa de no haber sido separada mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala en el que hubiera sido separado o inhabilitado.

4.- Declaración jurada o promesa de no hallarse incursa en alguna de las causas legales de incompatibilidad previstas en la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidad del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas, sin perjuicio de que antes del nombramiento se lleve a cabo la opción establecida por la citada Ley.

5.- Acreditación del Perfil preceptivo C1/C1 o título o certificado equivalente de conocimientos de euskera; o acreditación del reconocimiento de estudios oficiales realizados en euskera que supongan la exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas.

6.- Certificación negativa del Registro Central de Delincuentes Sexuales. En todo caso, las personas ciudadanas de origen extranjero o que tuvieran otra nacionalidad deberán, además, aportar certificación negativa de condenas penales expedido por las autoridades de su país de origen o donde sean nacionales respecto de los delitos que señala el apartado 1 del artículo 3 del Real Decreto 1110/2015, de 11 de diciembre, por el que se regula el Registro Central de Delincuentes Sexuales.

Si la persona aspirante seleccionada no presentase la documentación requerida, a excepción de la recogida en las bases 8.2 y 8.5 en los casos de programas temporales, quedarán anuladas todas las actuaciones referidas a la misma, sin perjuicio de la responsabilidad en que hubiera podido incurrir por falsedad.

## Novena. Periodo de evaluación.

Las personas integrantes de la bolsa de trabajo o del listado de personas candidatas a la realización de programas temporales incorporadas al servicio activo tendrán que superar un período de evaluación que formará parte del proceso selectivo.

El periodo de evaluación tendrá una duración de 4

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

meses.

Ebaluazio-aldiaren emaitza langilearen zuzeneko arduradunak jasoko du txosten batean.

El resultado del periodo de evaluación será recogido en un informe por el responsable directo.

Ebaluazioak irizpide hauek izango ditu:

La evaluación se referirá a los siguientes criterios:

Honako hauei dagokienez erakutsitako gaitasunak:

- Lanerako gaitasuna eta errendimendu profesionala.
- Erantzukizunaren zentzua eta eraginkortasuna.
- Ikasteko interesa, prestasuna eta ekimena.

Las aptitudes demostradas en cuanto a:

- Capacidad de trabajo y rendimiento profesional.
- Sentido de la responsabilidad y eficiencia.
- Interés por el aprendizaje, disposición e iniciativa.

Gaitasun frogatua:

- Lantaldean integratzea.
- Barneko eta kanpoko harremanak egokitzea.
- Bertaratzea eta puntualtasuna. Ordena eta garbitasuna.
- Materiala eta tresneria behar bezala erabiltzea.

Capacidad demostrada en cuanto a:

- Integración en el equipo de trabajo.
- Adaptación de sus relaciones internas y externas.
- Asistencia y puntualidad. Orden y limpieza.
- Utilización adecuada del material y del equipo.

Txostenak langilearen jarduna deskribatuko du, eta gai edo ez-gai gisa kalifikatuko du.

El informe describirá el desempeño de la trabajadora y lo calificará como Apta o No Apta.

Txostenaren emaitza Ez-Gai bada, espedientea irekiko da izendapena amaitzeko eta zerrendatik kanpo uzteko, eta 10 eguneko epea emango da alegazioak egiteko. Ondoren, dagokion ebazpena emango da, eta behin betiko baja-egoerara igaroko da, baldin eta poltsatik kanpo uzten badute.

En caso de que el resultado del informe sea No Apta se abrirá expediente para la finalización del nombramiento y exclusión de la lista concediéndose un plazo de 10 días para realizar hacer alegaciones, tras lo cual se dictará la Resolución que corresponda, pasando a la situación de baja definitiva en caso de resultar excluida de la Bolsa.

## Hamargarrena. Gorabeherak.

Epaimahai kalifikatzaileak ahalmena du edozein zalantza argitzeko eta hautaketa prozesua zuzena izan dadin beharrezko diren erabakiak hartzeko.

Deialdi honen oinarrietan jaso ez diren kasuetarako, hautatze prozesuak ondorengo lege hauetan ezarritakoa bete beharko dute: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriena; 11/2022 Legea, Euskal Enplegu Publikoaren Legea, abenduaren 1ekoa; Toki Araubidearen Oinarriena; 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Langileak Estatuko

## Décima. Incidencias.

El Tribunal Calificador queda facultado para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden del proceso selectivo.

En lo no previsto en estas bases, el proceso selectivo se ajustará a lo establecido en el texto refundido del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (TREBEP); Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la Reforma de la Función Pública; Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco; Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local; Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Musika eta Dantza Eskola

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

Administrazio Orokorraren zerbitzura sartzeko Erregelamendu Orokorra onartzen duena, Toki Administrazioan modu osagarrian aplikatzekoa; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kidegoena eta eskalena; 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa; 19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa; 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa; 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa; Donostiako Udalaren eta Musika Eskolako Lan poltsak sortu eta kudeatzeko irizpideak, 2021eko urtarrilaren 8ko (4.zk.) GAOn argitaratuak, 2023ko abenduaren 29ko (249. zk.) GAOn argitaratutako aldeketekin; eta aplikagarria den gainerako arautegia.

General de Ingreso del Personal al servicio de la Administración General del Estado, de aplicación supletoria a la Administración Local; Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público; Ley 7/2021, de 11 de noviembre, de los cuerpos y de las escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi; Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera; DECRETO 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco; Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad efectiva de Mujeres y Hombres; Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.; Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales; Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de carácter personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos; en los Criterios para la constitución y gestión de bolsas de trabajo de la Escuela de Música y Danza de de San Sebastián publicados en el BOG, n.º 4, de fecha 8 de enero de 2021, con modificación publicada en el BOG, nº249, con fecha 29 de diciembre de 2023; así como el resto de normativa aplicable.

### Hamaikagarrena. Aurka egitea.

Deialdia, oinarriak nahiz deialditik eta Epaimahai Kalifikatzailearen jardunetik eratorritako administrazioko egintzak aurkatu egin ahal izango dituzte interesdunek, bi lege hauetan onartutako kasuetan eta moduan: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean (2015eko urriaren 1ekoa) eta Administrazioarekiko Auzien Eskumena arautzen duen 29/1998 Legean (1998ko uztailaren 13koa).

### Undécima. Impugnaciones.

La convocatoria, sus bases y los actos administrativos que se deriven de aquellas y de la actuación del Tribunal Calificador se podrán impugnar por las personas interesadas en los casos y en la forma que establecen la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

## 1 ERANSKINA

### 3229 lanpostua Irakaslea (Hizkuntzaren Pedagogia-Pianoa)

### Prestakuntza berezia:

Gradua Musikako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetan (Pedagogia). Irakaskuntza-espezialitatea: Pianoa.**

*** HIZKUNTZAREN PEDAGOGIA IRAKASLEEN TITULAZIOAK**

Titulua lortzeko ikasitako Instrumentua/ahotsa gaiak bat etorri beharko du titulazio-betekizunean jasotako irakaskuntza-espezialitatearekin.

**Lanpostuen zerrenda honen ondorioetarako, honako titulazio hauekin ere beteko da baldintza:**

1. Dagokion irakaskuntza-espezialitateko Pedagogiako goi-mailako titulua (631/2010 ED).
2. Pedagogiako goi-mailako titulua (617/1995 ED), dagokion irakaskuntza-espezialitatean, edo musika-hizkuntzaren eta -hezkuntzaren pedagogiako espezialitatean eta musikako lanbide-titulazioa edo dagokion irakaskuntza-espezialitateko 64/2024 Dekretuaren 4. edo 5. xedapen iragankorraren araberako gaikuntza.
3. Gradua Musikako goi Mailako Arte Irakaskuntzetan, dagokion irakaskuntza-espezialitateko interpretazioko espezialitatean**, 289/92 Dekretuaren 1. mailako gaikuntzarekin batera, edo pedagogiako edo didaktikako arte-irakaskuntzetako master batekin edo 150 ordutik gorako graduondoko batekin batera, musika-irakaskuntza aktiboan.
4. Gradua Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan,

## ANEXO 1

### Puesto 3229 Profesor/a (Pedagogía del Lenguaje-Piano)

### Formación específica:

Grado en Enseñanzas Artísticas Superiores de Música (Pedagogía). Especialidad docente: Piano*

*** TITULACIONES DEL PROFESORADO PEDAGOGÍA DEL LENGUAJE**

La materia Instrumento/voz cursada para la obtención del título requerido deberá corresponder con la especialidad docente recogida en el requisito de titulación.

**A los efectos de esta RPT, se cumplirá el requisito también con las siguientes titulaciones:**

1. Título Superior en Pedagogía (RD 631/2010) de la especialidad docente correspondiente.
2.- Título Superior en Pedagogía (RD 617/1995) en la especialidad especialidad docente correspondiente, o de Pedagogía del lenguaje y la educación musical y titulación Profesional de Música o habilitación según D.T. 4 o 5 del Decreto 64/2024 de la especialidad docente correspondiente.
3. Título de grado en Enseñanzas Artísticas Superiores de Música en la especialidad de interpretación** de la especialidad docente correspondiente, acompañado de habilitación de nivel 1 del Decreto 289/92 o un máster o un postgrado de más de 150 horas de enseñanzas artísticas en pedagogía o didáctica en la enseñanza musical activa.
4. Grado en Educación Infantil o Primaria, acompañado de titulación Profesional de Música o habilitación según D.T. 4 o 5 del Decreto 64/2024, correspondiente a la especialidad

musikako lanbide-titulazioarekin edo 64/2024 Dekretuaren 4 edo 5. D.T.aren araberako gaikuntzarekin batera, lanpostuaren irakaskuntza-espezialitateari dagokiona.
5. Musikako edo Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetako edozein gradu 289/92 Dekretuaren 1. mailako gaikuntzarekin edo pedagogiako edo didaktikako arte-irakaskuntzetako master batekin edo 150 ordutik gorako graduondoko batekin batera, musika-irakaskuntza aktiboan, eta musikako lanbide-titulazioa edo dagokion irakaskuntza-espezialitateko 64/2024 Dekretuaren 4. edo 5. xedapen iragankorraren araberako gaikuntza.

docente del puesto.
5. Cualquier grado en Enseñanzas Artísticas Superiores de Música o de Danza acompañado de habilitación de nivel 1 del Decreto 289/92 o un máster o un postgrado de más de 150 horas de enseñanzas artísticas en pedagogía o didáctica en la enseñanza musical activa, y titulación Profesional de Música o habilitación según D.T. 4 o 5 del Decreto 64/2024 de la especialidad docente correspondiente.

# 2 ERANSKINA

## 3238 lanpostua Irakaslea (Piano modernoa)

### Prestakuntza berezia:

Gradua Musikako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetan, Interpretazio edo Pedagogia espezialitateetan. Irakaskuntza espezialitatea: Teklatuak/Jazz Pianoa.**

**** INSTRUMENTU ETA KANTU IRAKASLEEN TITULAZIOAK:**

Titulua lortzeko ikasitako Instrumentua/ahotsa gaiak bat etorri beharko du titulazio-betekizunean jasotako irakaskuntza-espezialitatearekin.

**Lanpostuen zerrenda honen ondorioetarako, honako titulazio hauekin ere beteko da baldintza:**

1. Dagokion irakaskuntza-espezialitatearen interpretazioko edo pedagogiako goi-mailako titulua (631/2010 ED. [MECES2]:
2. Instrumentua, kantua, jazza edo kantuaren eta espezialitate instrumentalen pedagogiako Musikako goi-mailako titulua (617/1995 ED), dagokion irakaskuntza-espezialitatearena [MECES 3].
4. Irakasle-titulua dagokion irakaskuntza-espezialitatean (2618/1966 Dekretua) [MECES 2].
5. Dagokion irakaskuntza-espezialitateko goi-mailako irakaslearen titulua (2618/1966 Dekretua) [MECES 3]
6. Opera Abeslari Diploma (313/1970 Dekretua) [MECES 2]
7. Bakarlarientzako Espezializazioko Goi Mailako Diploma (313/1970 Dekretua) [MECES 3]

# ANEXO 2

## Puesto 3238 Profesor/a (Piano moderno)

### Formación específica:

Grado en Enseñanzas Artísticas Superiores de Música, especialidades Interpretación o Pedagogía. Especialidad docente: Teclados/piano Jazz.**

**** TITULACIONES PROFESORADO DE INSTRUMENTO Y CANTO**

La materia Instrumento/voz cursada para la obtención del título requerido deberá corresponder con la especialidad docente recogida en el requisito de titulación.

**A los efectos de esta RPT, se cumplirá el requisito también con las siguientes titulaciones:**

1. Título Superior en Interpretación o Pedagogía (RD 631/2010) de la especialidad docente correspondiente [MECES2]
2. Título Superior de Música: Instrumento, canto, Jazz o Pedagogía del canto y de las especialidades instrumentales (RD 617/1995) de la especialidad docente correspondiente. [MECES 3].
3. Título de Profesor en la especialidad docente correspondiente (Decreto 2618/1966) [MECES 2].
4. Título de Profesor Superior en la especialidad docente correspondiente (Decreto 2618/1966) [MECES 3]
5. Diploma de Cantante de Ópera (Decreto 313/1970) [MECES2]
6. Diploma Superior de Especialización para solistas (Decreto 313/1970) [MECES 3]

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

8. Aurreko planetako tituluak, irakasle-tituluaren baliokideak dena delako irakaskuntza-espezialitatean (2618/1966 Dekretua) [MECES 2]

9. Instrumentua edo kantua interpretazio unibertsitate gradu titulazioak, ED 631/2010 arauaren arabera oinarrizko prestakuntzako kredituak eta irakaskuntza-espezialitateko derrigorrezko ikasgaiak dituztenak. [MECES 2]

7. Títulos de planes anteriores equivalentes al Título de Profesor en la especialidad docente correspondiente (Decreto 2618/1966) [MECES 2]

8,. Titulaciones universitarias de grado en interpretación de instrumento o canto, que tengan los créditos de formación básica y materias obligatorias de la especialidad docente según RD 631/2010. [MECES 2]

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Musika eta Dantza Eskola

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

## 3 ERANSKINA

### 3259 lanpostua Irakaslea (Bateria-Perkusioa)

### Prestakuntza berezia:

Gradua Musikako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetan, Interpretazio edo Pedagogia espezialitateetan. Irakaskuntza-espezialitatea: Jazz Bateria edo Perkusioa.**

**** INSTRUMENTU ETA KANTU IRAKASLEEN TITULAZIOAK:**

Titulua lortzeko ikasitako Instrumentua/ahotsa gaiak bat etorri beharko du titulazio-betekizunean jasotako irakaskuntza-espezialitatearekin.

**Lanpostuen zerrenda honen ondorioetarako, honako titulazio hauekin ere beteko da baldintza:**

1. Dagokion irakaskuntza-espezialitatearen interpretazioko edo pedagogiako goi-mailako titulua (631/2010 ED. [MECES2]:
2. Instrumentua, kantua, jazza edo kantuaren eta espezialitate instrumentalen pedagogiako Musikako goi-mailako titulua (617/1995 ED), dagokion irakaskuntza-espezialitatearena [MECES 3].
4. Irakasle-titulua dagokion irakaskuntza-espezialitatean (2618/1966 Dekretua) [MECES 2].
5. Dagokion irakaskuntza-espezialitateko goi-mailako irakaslearen titulua (2618/1966 Dekretua) [MECES 3]
6. Opera Abeslari Diploma (313/1970 Dekretua) [MECES 2]
7. Bakarlarientzako Espezializazioko Goi Mailako Diploma (313/1970 Dekretua) [MECES 3]
8. Aurreko planetako tituluak, irakasle-tituluaren baliokideak dena delako irakaskuntza-espezialitatean (2618/1966 Dekretua) [MECES 2]
9. Instrumentua edo kantua interpretazio unibertsitate gradu titulazioak, ED 631/2010 arauaren arabera oinarrizko prestakuntzako kredituak eta irakaskuntza-espezialitateko derrigorrezko ikasgaiak dituztenak. [MECES 2]

## ANEXO 3

### Puesto 3259 Profesor/a (Batería-Percusión)

### Formación específica:

Grado en Enseñanzas Artísticas Superiores de Música, especialidades Interpretación o Pedagogía. Especialidad docente: Batería Jazz o Percusión.**

**** TITULACIONES PROFESORADO DE INSTRUMENTO Y CANTO**

La materia Instrumento/voz cursada para la obtención del título requerido deberá corresponder con la especialidad docente recogida en el requisito de titulación.

**A los efectos de esta RPT, se cumplirá el requisito también con las siguientes titulaciones:**

1. Título Superior en Interpretación o Pedagogía (RD 631/2010) de la especialidad docente correspondiente [MECES2]
2. Título Superior de Música: Instrumento, canto, Jazz o Pedagogía del canto y de las especialidades instrumentales (RD 617/1995) de la especialidad docente correspondiente. [MECES 3].
3. Título de Profesor en la especialidad docente correspondiente (Decreto 2618/1966) [MECES 2].
4. Título de Profesor Superior en la especialidad docente correspondiente (Decreto 2618/1966) [MECES 3]
5. Diploma de Cantante de Ópera (Decreto 313/1970) [MECES2]
6. Diploma Superior de Especialización para solistas (Decreto 313/1970) [MECES 3]
7. Títulos de planes anteriores equivalentes al Título de Profesor en la especialidad docente correspondiente (Decreto 2618/1966) [MECES 2]
8,. Titulaciones universitarias de grado en interpretación de instrumento o canto, que tengan los créditos de formación básica y materias obligatorias de la especialidad docente según RD 631/2010. [MECES 2]

## 4. ERANSKINA

## 2. ARIKETARAKO EGOERAK

### 3229 lanpostua Irakaslea (Hizkuntzaren Pedagogia-Pianoa)

**Maila eta irakasgaiei buruzko erreferentzia guztiak Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolak bere Eskolako Hezkuntza Proiektuan (EHP) definitutako maila eta irakasgaiei dagozkie.**

1.- Ahots hezkuntzaren eta kantuaren planteamendua 1. mailan, Musika eta Mugimendua eta Musika tailerra irakasgaietan.

2.- Entzumen hezkuntzaren lana Musika eta Mugimendua eta Musika Tailerreko klaseetan.

3.- Hezkuntza erritmikoaren garapena Musika eta Mugimendua eta Musika Tailerreko klaseetan.

4.- Lanerako moduak eta mekanismoak talde kohesionatuak lortzeko, talde horien lan-giroak ikasle bakoitzaren garapen eta ongizate emozionala eta hezkidetza bermatzeko Musika eta Mugimendua eta Musika Tailerra irakasgaietako eskoletan.

5.- Sormenaren sustapena eta adierazpen musikal pertsonalaren garapena Musika eta Mugimendua eta Musika Tailerra irakasgaietan 1. mailan zehar.

## ANEXO 4

## SITUACIONES 2º EJERCICIO

### Puesto 3229 Profesor/a (Pedagogía del Lenguaje-Piano)

**Todas las referencias a niveles y asignaturas corresponden a los niveles y asignaturas definidas en las Escuela Municipal de Música y Danza de San Sebastián en su Proyecto Educativo de Centro (PEC).**

1.- Planteamiento de la educación vocal y el canto en el nivel 1, en las asignaturas de Música y Movimiento y Taller de Música.

2.- Trabajo de la educación auditiva en las clases de Música y Movimiento y Taller de Música.

3.- Desarrollo de la educación rítmica en las clases de Música y Movimiento y Taller de Música.

4.- Modos de trabajo y mecanismos para conseguir grupos cohesionados cuyo ambiente de trabajo garantice el desarrollo y bienestar emocional de cada alumna y alumno y la coeducación en las clases de las asignaturas Música y Movimiento y Taller de Música.

5.- Promoción de la creatividad y el desarrollo de la expresión musical personal a lo largo de Nivel 1 en las asignaturas de Música y Movimiento y Taller de Música.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Musika eta Dantza Eskola

www.donostiaeskola.eus | Tel. 943297830 | info@donostiaeskola.eus
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

## 5 ERANSKINA

## 1. ARIKETAKO GAITEGIA

### 3238 lanpostua Irakaslea (Piano modernoa)

1.- Musikaren teoria. Musikaren idazkera eta erritmoa.

2.- Harmonia: Tonalitatea, moduak, zifratu amerikarra, akorde triada eta koatriadak, progresio harmonikoak: gradu diatonikoak, bigarren mailako dominanteak.

3.- Musika instrumentuak: Sailkapena, oinarrizko ezaugarriak eta idazkera.

4.- Herri musika eta modernoaren historia XX eta XXI. mendeetan.

5.- Euskal herri-musika modernoa XX eta XXI. mendeetan

6.- Emakumeak herri musikaren historian XX. eta XXI. mendeetan

## ANEXO 5

## TEMARIO DEL EJERCICIO 1

### Puesto 3238 Profesor/a (Piano moderno)

1.- Teoría Musical: Escritura musical y ritmo.

2.- Armonía: Tonalidad, modos, cifrado americano, acordes tríada y cuatriada, progresiones armónicas: grados diatónicos, dominantes secundarios.

3.- Instrumentos musicales: Clasificación, características principales y escritura.

4.- Historia de la música popular y moderna en los siglos XX y XXI.

5.- Música popular vasca moderna en los siglos XX y XXI

6.- Mujeres en la historia de la música popular en los siglos XX y XXI.

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Mikel Romero Laibarra (16/09/2025 16:04 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : QULD-CTCM-RQ94-LI6H